



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OIONgo Udala

KARTEL-LEHIAKETAREN OINARRIAK ESKER ONEZKO JAIK

EZAUGARRIAK

TAMAINA: Inprimatze errearen tamaina **DIN-A3koa** izango da. Egileak beste neurri batzuekin lan egin dezake, betiere lehen aipatutako proportzionaltasunari eutsita.

TEKNIKA: Egite-teknika askea izango da, ordenagailuz egindako diseinu grafikoa barne. Nolanahi ere, aurkeztutako lanak paper edo kartulinar erreproduzituta entregatu beharko dira festetan zehar udal-aretoetan erakusteko.

NAHITAEZKO TESTUA: Udalerriaren ezkutu heraldikoa ikusgai egon beharko da (udal-bulegoetan entregatuko da) eta bakar-bakarrak ondorengo testua agertuko da:

OYÓN-OION 2018 FIESTAS DE ACCIÓN DE GRACIAS ESKER ONEZKO JAIK

**DEL 22 AL 27 DE AGOSTO
ABUZTUAREN 22tik 27ra**

SARIAK: 400 euroko helduen sari bat banatuko da. Kartel irabazlea Oyón-Oiongo Udalaren jabetzakoa izango da. Saritu ez diren kartelak beren jabeen bueltatuko zaizkie.

AURKEZPENA

MODUA: Parte-hartzaileek bi gutun-azal itxitan aurkeztuko dituzte euren proposamenak: 1) A gutun-azala. Kartela sartuko da (euskari zurruna, kartoi-luma edo antzekoa...), eta kartelaren eta gutun-azalaren atzealdean leloa edo izenburua zehaztuko da. 2) B gutun-azala. Egilearen izena, abizenak posta-helbidea, helbide elektronikoa, NANaren fotokopia eta harremanetarako telefono zenbakia zehaztuko dira. Horiakin batera, irudiaren kopia entregatu beharko da jpg edo pdf formatuan (300 dpi-ko erresoluzioa duena), eta euskari digitalean, pendriven, CDan... Gutun-azal honen atzealdean ere leloa edo izenburua zehaztuko da.

(A eta B gutun-azalen kanpoko zigarlatuan kartelaren LELO EDO TITULUA agertu beharko da).

KOPURUA: Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez ere, hiru kartel aurkeztu ahalko ditu.

EPEA: Lanak **2018ko uztailaren 6an**, 14:00ak baino lehen, aurkeztu beharko dira, udal-bulegoetan.

*Era berean postaz bidalitako dokumentazioa (Oyón-Oioneko Udala-Kartel Lehiaketa-Plaza Nagusia 5 – P. K.:01320 Oyón-Oion-Araba) udal-bulegoetan egon beharko da **2018ko uztailaren 6an**. Parte-hartzaileen ardura izango da lanak oinarrietan zehaztutako epean entregatzea. Ez da onartuko jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordutik kanpo jasotzen den dokumentazioa. Dena delakoagatik, ezinbestekoagatik ere bai, lanak epaimahaia elkartu baino lehen udal-bulegoetan jasoko ez balira, lan horiek baztertu egingo lirake.*

HARTU-AGIRIA: Udal-bulegoetan ziurtagiri bat egingo da parte-hartzailearen izenean, eta hori gabe ezingo da lanik eraman.

EPAIMAHAIA

OSAERA: Epaimahaia enpresa grafikoetako eta argazki-enpresetako teknikariek osatuko dute. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dute.

AUKERAKETA: Epaimahaiak bazterketa bidez egingo du aukeraketa, eta botoa sekretua izango da.

EPAIA: Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da. Epaimahaiak bertan behera utz dezake lehiaketa gutun-azalak ireki gabe, baldin eta parte-hartzaileen kopurua **sei** baino gutxiagokoa bada. **Sari-banaketa 2018ko uztailaren 15ean izango da.**

JABETZA

ESKUBIDEAK: Saritutako kartelen eskubideak, bere osotasunean, Oyón-Oiongo Udalarenak izango dira.

ERAKUSKETA: Udalak eskubidea izango du aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa bat antolatzeko (sartuak izan ala ez).

ITZULTZEA: Saritu ez diren kartelak irailaren 1etik 15era bueltatuko dira, egileek hala eskatuz gero.

INFORMAZIOA: Edozein motatako informazioa jasotzeko, jarri harremanetan Oyón-Oiongo Udalarekin. Plaza Nagusia 5 P.K.: 01320-Oyón-Oion (Araba). Tel.: 945-622190 / 622192.

ONARPENA: Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Epaimahaiak erabakita, saria eman gabe utzi ahalko da.

Oyón-Oion, 2018ko maiatzaren 24a.